

erantzuiguzu...



943 300 228



zuzendaritari@jalgi.com

Guggenheim: ikuskizuna edo artea?

■ **Argi dago batik bat** ikuskizunaren alde egin dela museo hori zabaltzean. Horretan ez dago dudarik. Bestela zertarako ekarri dituzte Mariah Carey kantaria, Brad Pitt aktorea eta orain dela gutxi James Bonden grabaketa? Bada hori, ikuskizunaren aldeko apustua egiten delako. Eta Mari Karmen Garmendiak elkarriketa batean zioen orain edukietan

Ez dira argitaratuko izenik gabe iristen diren mezuak. Izen-abizena eta telefono zenbakia eman behar dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak badu horretarako eskubidea.

lan egiten hasi behar dela. Eta horretan berearekin ados nago. Baina askotan haien hitzak ezerezean geratzen dira. Ea oraingo honetan zer gertatzen dira. **Ainhoa Gorosabel** (Arrasate)

■ **Argi dagoena zera da,** hainbatek sail hone-

tan esan duten moduan. Bilbori eta inguruei mesede izugarria egin diela museo horrek. Horretan ez da dudarik. Eta arteari mesederik egiten dion? Ez dakit bada. Bertako arteari ez dut uste mesede gehiegirik egingo dionik. **Nik** horretaz ez dut gehie-

gi ulertzen, baina hainbat artistari eta entzun izan diodanez, bertako artelanei ez zaio batere kasurik egiten. Baina hori beste kontu bat da. **Jon Garcia** (Bilbo)

■ **Nik galdetuko nukeena** zera da: hara joan direnetik zenbat joan dira espreski artea ikustera? Nire eskuko behatzekin kontatu ahalko nituzke. **Ana Artoia** (Galdakao)



galdeiozu...

Txillardegí

IDAZLEA

Aukeratzeko, zer zenuke nahiago: Euskal Herri independente eta erdalduna edo gaur egungo menpekotasun politikoarekin Euskal Herri guztiz euskalduna?

Josu Albero [Azpeltia]



■ **AZKEN HIPOTESIARI** dagokionez, lurraldetasunik gabe soluziorik ez dago hizkuntzentzako, eta hemen ez dugu lurraldetasunik. Eta hori gabe jai dugu. Independenten eta erdaldunari dagokionez: herria erdalduna bada, franko-espainiarra izango da, alegia, herria erditubua genuke; ez du zentzurik hipotesi horrek. Ez bata ez bestea ez dira posible.

Marboaren 2tik aurrera

Imanol Lazkano • EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEKO

LEHENAKARIA izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.

Bidali zure galderak ordurako.



ZUZENDARIARI



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 leuro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAREN zenbakia ageritu beharoko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

PSOE

Alderdi honek daraman bilaera guztiz harrigarria da. 80ko hamarkadaren hasieran eta boterea esku-ratu baino lehen, alderdi ezker-tiar, solidario, aurrerakoi eta bere izenak dionez, langilea zen.

Hauteskundeak irabazi ostean, lanpostuak sortu beharrean, langile askok euren burua kalean ikusi zuten honen politikaren eraginez. Bere garaian NATOren aurkaria izan arren, Aliantzan sartu gintuen. Euskal Herrian errepresio gogorra jasan genuen eta GAL talde paramilitarmerzenarioa sortu zuen.

Bere azken ekimena, kurduak Euskal Legebiltzarrean batzarra egitearen eragozpen nahia da. Interes ekonomikoak baldin badaude aurrean, nahiago du herri zapaldu baten ahotsa ito, eta, beraz, bere sufri-mendua luzarazi. Giza eskubideak bost axola. Zenbat aldiz entzun diegu ezin dela txantaiaren aurrean

etsi? Benetan negargarria! **Jaime Alzugarai** • DONOSTIA

J. Mayor Orejarekin elkarriketa

Maddalen Iriartekilikako elkarriketan ETB baterako, J. Mayor Oreja-ri behatuz eta haren arpegiari so eginez muslari den bati, memento batez, ez zaio eskapatu nola bere burua salatu duen hain larriki eta itsuski Espainol barne ministroak.

ETA armak berriro hartzeko prestatzen ari dela erraiteko oso hurbiletik dago informaturik eta bestalde egutegi honena ekaineko hauteskunde onderen segurtatuz edo profeta bilakatu da, bat batean, edo berak markatutako kartekilan nahi gitu ar-arazi musean!

Faltsukeriaren itxura eta gezurkeriaren hitzekilan planteatu du bethikituz bere personaia. Aldi hontan gehiegi azpimarratu du komedia hori.

EH-ren giro berriaren ezetzatzeko Espainol barne ministroak, berriz ere, urruntxegi bota du amua deplauki baieztatuz treguaren bukaera ekaineko hauteskunde onderen izango dela eta ez izaten ahal, dela.

Fitexka mintzatu da jaunttoa eta haren jokoa erakutsi du... eta bestalde, berak eskapatzerat utzi duen arpegi eskarni batez, ohart arazi dauku, ametsetan izan bagina ere, bera ohartu zela mingaina lerratu zitzaioa... videoan dutenek hori aixe ikusiko dute berriro eta berriro. (esker mila Maddalen eta ETB!).

Indarkeri guztien aurkako gako

politikoa dela badaki eta zernahi saiaturko du politika giro honen xikitatzeko (irentzeko). Helburu hontan taktika horixe du: karkula elektoralista abertzaleek dutela egiten eta bake prozesua dela aitzaki (estakulu) bat besterik ez. Erantzun gisa galdetzen bazaio nola fidatzen ahal den bere erranetan: PPKo zinegotzien aurkako indarkeriarik gabe, 1994ez geroz PPK lortuko ote zituen EAEn 100.000 boto gehiago?.

Nahi nioke orduan ikusi bere arpegia! **Eric Etchamendy** • MITHIRI-NE (NAFARROA BEHEREA).

ZUZENKETA: Pasa den ostiraleko EGUNKARIAN EH-Nafarroako zerrendaburua Per-nando Barrena izango zela azaldu zen, baina EH-Nafarroak oraindik ez du zerrendaburua zein izango den erabaki. Berria kazetariaren gaizki-uleru baten ondorioz kaleratu zen modu horretan, eta, beraz, sortutako eragozpenengatik barkamenak eskatzen dizkiegu irakurle guztiei.

• MONTXO •

